



## **Mensaje Foro (EUS) Alkateen Foroaren mezua** *Hiri eta Komunitate Lagunkoien III. Mundu Biltzarra*

Donostian, munduko hainbat tokitako hiri, udalerrri eta lurraldeak elkartu garelarik, baieztatzen dugu biztanleriaren zahartzea gure garaiko egiturazko aldaketa handienetako bat dela, eta aukera historiko bat, elkarrekin nola bizi nahi dugun birpentsatzeko.

Aldaketa demografikoa gure komunitateak berriz definitzen ari da, eta hiri-bizitzaren eremu guztiei eragiten die: etxebizitza, espazio publikoa, mugikortasuna eta zaintza, partaidetza demokratikoa, enplegua, bizialdi osoko ikaskuntza, hezkuntza, tokiko ekonomia, larrialdi klimatikoa edo bizitza kolektiboa antolatzeko modua bera. Horregatik, erantzun zatikatuetatik, aurrea hartzeko, zaintzeko eta berritzeko gai diren ikuspegi integraletara igaro behar dugu. Galdera berriak egitera ere gonbidatzen gaitu, gure erakundeek ikasteko gaitasuna indartzera eta hauteskunde-zikloetatik harago doazen eraldaketak planifikatzera.

Uste sendo horretatik, tokiko gobernuek posizio erabakigarria dutela baieztatzen dugu. Hain zuzen ere, eskala hurbilean zehazten dira erronkak, eta hor sortzen dira irtenbide baliotsuenetako asko ere. Udal-politika berrikuntza publikorako, gizarte-koheziarako eta berrikuntza demokratikorako gunea izan daiteke, eta izan behar du, gobernantza-modu berriak sustatzeko, eragile askotarikoak konektatzeko eta erronka konplexuei erantzun kolektiboak ahalbidetzeko.

Etorkizuneko bost konpromiso partekatzen ditugu:

1. Behar diren baldintzak **aktibatzea**, adinekoen ahotsa, talentua, aniztasuna eta parte-hartzea –baita hauskortasun –edo zaurgarritasun-egoeraren batean direnena ere– hiria pentsatzeko, diseinatzeko eta gobernatzeko moduaren benetako parte izan daitezen, herritartasuna erabat baliatuz, bere eskubide eta erantzukizunekin, bizitza demokratikoaren funtsezko dimentsio gisa.
2. Aldaketa demografikoa ekintza publiko osoan **txertatzea**, hiri-plangintzan, udal-politikan, zerbitzuetan eta erabakiak hartzeko orduan zeharkako begirada sistemikoa sustatuz, eta, aldi berean, erakundeek aurrea hartzeko, ikasteko eta epe luzerako plangintza egiteko gaitasuna indartuz.
3. Aliantza zabalagoak **bultzatzea**, gizarte adintsuen testuinguruan, erakundeak, herritarrak, komunitateak, zientzia, kultura, hezkuntza eta ekonomia-ehuna konektatuz adin guztietarako hiriak eta komunitateak eraikitzeko asmo partekatuaren inguruan, non loturak, sareak, belaunaldien arteko harremanak eta komunitate-bizitza bizi-kalitaterako eta ongizaterako funtsezko baldintzat hartuko diren. Testuinguru horretan, tokiko gobernuek

ere beren eginkizuna indartzen dute aliantzak errazten, eragileak konektatzen eta lankidetzak sustatzen duten erakunde gisa.

4. Lurralde bizigarriagoak, konektatuagoak, jasangarriagoak eta osasungarriagoak **diseinatzea**, osasuna zentzu zabalean hartuta, bizi-baldintzekin, eguneroko inguruneekin, harremanekin eta parte hartzeko aukerekin lotuta, bizitza beteak, autonomia, topaketa, ongizatea, belaunaldien arteko harremanak eta kohesio soziala bultzatuz bizi-ibilbide osoan zehar, baita zahartzaroan ere.
5. Hiri, udalerrri eta lurraldeen arteko ikaskuntza-sare global bat **indartzea**, zahartzearen erronken aurrean praktikak, galderak, ikaskuntzak, narratibak eta berrikuntza publikoa partekatuz.

Hiri eta komunitate lagunkoien mugimendua agenda sektorial bat baino askoz gehiago da gaur egun. Bide zehatz bat da, gizarte bidezkoagoak, luzeagoak, inklusiboagoak, jasangarriagoak eta osasungarriagoak lortzeko bidean aurrera egiteko.

Alkateen eta tokiko ordezkarien topaketa honetan, lagunkotasuna zeregin kolektibo bat eta hirien, udalerrien eta lurraldeen arteko ikaskuntza-prozesu partekatu bat dela berresten dugu. Agenda hori tokiko esperientzia oinarritzat hartuz eraikitzen da, bizitza osoan herritartasuna gauzatzea sustatzen du, eta zentzu handiagoa hartzen du beste testuinguru, galdera eta eraldaketa-bide batzuekin lotzen denean.

Badakigu, halaber, zahartzeari eta luzaroko bizitzari buruz hitz egiteko moduak gure jarduteko moduan ere eragina duela. Adinekoen aniztasuna, ekarpen egiteko gaitasuna eta zeregin aktiboa aitortzen dituzten narratibak eraikitzea bultzatu nahi dugun eraldaketaren parte da.

Topaketa honek ez du elkarrizketa ixten. Ireki egiten du.

Erronka demografikoaren aurrean, tokiko gobernuok zeregin erabakigarria dugu: zaintzen duten hiriak, hitz egiten duten demokraziak eta eraldatzeko gai diren lurraldeak bultzatzea. Izan ere, luzaroko bizitzaren ikuspegitik garatzen ari garen erantzun askok gure hiriek eta komunitateek dituzten beste erronka handi batzuei aurre egiten ere laguntzen digute.

Donostia, 2026ko ekainaren 15a

Mezu hau Alkateen Foroan izandako elkarrizketetatik abiatuta landu da, honako udalerrri, hiri, lurralde, erakunde eta sare hauetako ordezkarien parte-hartzearekin:

**Udalerrriak, hiriak eta lurraldeak:** Alcoi (Espainia); Almendralejo (Espainia); Amurrio (Euskadi); Avilés (Espainia); Azkoitia (Euskadi); Banjul (Gambia); Barakaldo (Euskadi); Changunarayan (Nepal); Curridabat (Costa Rica); Donostia / San Sebastián (Euskadi); Fuenlabrada (Espainia); Fuentes de Ebro (Espainia); Hanburgo (Alemania); Heredia (Costa Rica); La Vellés (Espainia); Los Alcarizos (Dominikar Errepublikar); Penang (Malaysia); Sandnes (Norvegia); San Javier (Espainia); São Paulo (Brasil); Singapur; Vallirana (Espainia).

**Erakundeak eta sareak:** Centre for Age-Friendly Norway; Espainiako Udalerrri eta Probintzien Federazioa (FEMP); Eusko Jaurlaritzak / Euskadi Lagunkoia Berria; IMSERSO; Eskubide Sozialen, Kontsumoaren eta 2030 Agendaren Ministerioa; Osasunaren Mundu Erakundea (OME).